

**ANTONIO ARRUTI, OLERKARI GALDUA
(1882-1919)**

Euskaltzale¹ gutxi dago gaur egun frai Antonio Arruti Olaizola olekariaren berri duenik. Beste kasu askotan bezalatsum berehalako gerraondo hartan haren notiziarik izan genuenok batez ere Onaindiaren *Euskal mila olerki eder* (1954) bilduna aberatsari esker jakin genuen zerbait. Izan ere, Aita Santik zortzi idazlan bildu baitzizkion bere bildumarako.

Lagunarte hurbilagoan, Arrutiren oroitzapenak nahiko bizirik iraun du, eta eraginik ere izan zuen, bi frantziskotar ezagunengan: Salvatore Mitxelenak eta Bitoriano Gandiagak gogoan izan dute poeta zarauztar haren ekarria, eta, bestalde, azken hamarkadetan milaka aldiz entzun izan da Arantzazun Arrutiren letraz horniturik abestutako “Zure errukizko begiak, Ama” kanta. Villasantek ere, bere garain (1961), lehendik A. Madariagak-eta esandakoak errepikatuz, gogorarazi zigun Arrutiren antologia baten premia.

Hala ere, presentzia horiek gorabehera, eta urteak iragan ahala, Arrutiren irudia lausotuz eta galduz joan zaigu azken hiru hamarkadetan. Orain, berrikitan, poetaren olerki-bilduma paratzen jarduteko egokiera izan dut, eta bide batez baita beraren bizialdiko urratsak aztertzeko ere. Berehala kalera daitekeen edizioari aurrea hartuz datoz, ba, ondoko albisteak.

¹ *Euskal Fundazioa*-k emandako erraztasunei esker burutu da lan hau. Eskerrik asko, ba, erakunde horri.

Arrutiren bizitza bi epealditan bana daiteke: haurtzaro luze bat (1882-1897) eta fraide egin zenetik aurrerakoa (1897-1919). Lehenengoan, barne-muga zehatza ezartzen du Oikiatik Zarautza itzuli zen urteak (1895); bigarrenean, berriz, ikasketak osorik bukatu eta Irakaslegoari ekin zioneko urtean dugu beste muga (1912). Hori, biografia pertsonalean.

Besterik da, ordea, Arruti-ren kultur bizitzari dagozkionetan, Aurreikus daitekeenez, 18-30 urtetan jarri behar da haren barne-garapen garaia (1900-1912); hori burutzerara doanean ekingo dio olerki-sorketari, eta azkeneko hamabi urteak gertatuko dira Arruti-ren obra literarioaren sasoin bete (1908-1919).

Haurtzaroa (1882-1897)

Arruti Zarautzen jaio zen (inoiz bestelakorik esan bada ere), 1882an. Aita sorterri berekoa zuen, eta ama oikiarra (Zumaia). Bataio-izena Joan Joxe Maurizio izan zuen, baina etxean Jose-txo deitu izan zioten. Antonio, berriz, fraide sartu eta profesia egin zuenean hartu zuen bere izentzat. Seme bakarra izanik, gaur egun Zarautzen ez da olerkariaren senideren baten ondokorik, baina bai osaba-izebengandik sortutako Arrutitarrik.

Urte eta hilabete gutxi zituela amaren Oikiako baserri sortetxera joan behar izan zuen familiak, han amaren anaia ezkondu bat hil zenean. Ondoko urteak Oikian eman zituen Jose-txok. Olerkietan inguru haietako oroitzapenik ederrena du, eta aukerarik izan zuenetan pozik itzuli izan zen, fraide zelarik ere, bere Oikiara: Meza Berri ondoren, herritarrekin bere apaizgoa ospatzera (1907), edota San Bartolometan kasik itsututa ere sermoia egitera (1918).

Oikian bizi izan zen 1883tik 1895eraino, baina azkenik Zarautza itzuli behar izan zuen berriro azken urte horretan, izan ere bien bitartean, aita-amak hil egin baitzitzaizkion: aita, haurrak lau urte eskas zituela, eta ama, Josetxo mutil koskorra zelarik (1895); orduan, aitona zaharra bakarrik edo geratu zen Beheko errementariko baserrian. Olerki hunkigarririk badu ez-

behar hauek denak gogoraraziz, izan ere Aita Arruti ez baitzen izan batere ~~sorte~~ oneko gizona, bere bizitan.

Familiarteko egoera hartan geroari aurre egiteko, Zarauzko osaba-izeba batzuren etxera eraman zuten mutikoa. Bizialdi hartako oroitzapen lausoren bat ere geratu da gaurdaino Zarauzko Arrutitarren artean, eta zehaztasun gehiagorekin familiarteko paperetan.

Bi urte eman zituen Josexo mutikoak orduan Zarautzen, eta frantziskotarretan hasi zen latina ikasten, Aita Ariztegiarekin. Ikasle ona zen, eta fraide sartzea eskatu zuenean ez zuen noski eragozpenik izan, ez osaba-izeben etxean, ezta komentuan ere. Handik aurrera, frantziskotargai gazteen ikasketa-bidea hasi zuen.

Fraide eta apaizgai (1897-1908)

Horrela, 1897an sartu zen Zarauzko frantziskotarren nozibiatuan, Aita Mz. De Zuazo Maisutzat zuela (Arantzazu berritu zuena, eta geroago, 1909-1915.etan, sona handiko Probintzial izandakoa). Besteak beste, zerbait bere aurretik zihoan Aita Basilio Gerra idazlea nobizio lagun izan zuen han. Lehen Profesia egin ostean, garaiko ikasketak halaxe antolaturik zeudelako, Bermeoko komentura joan zen, han baitzegoen Nobiziaturonoko Humanitate-urtea.

Arantzazuko Santutegian bizi izan zen hurrengo hiru urteetan, 1899tik 1902raino, Filosofia ikasten. Ez gara sartuko orduko xehetasun arruntak ematen. Gero, Teologi urteak, Erriberrikoak, luzeagoak izan ziren, sei ikasturte bete behar izan baitzuten, indarrean zegoen ikas-erreformari jarraituz (1902-1908).

Arrutiren ikas-notak begiratura, urte haietako ikaslerik onena bezala ageri zaigula esan behar da, zeren Teologian eman zitzaizkion hamalau ikas-notetatik hamahiru “meritissimus” izan baitzuten. Arrutirena da orduko espediente akademikorik onena.

Ikasketak bukatu aurretik egin zen apaiz Frai Antonio Arruti, Nafarroako Erriberrin, 1907ko Azaroaren 24an, eta Zarautzen eman zuen Meza Berria.

Hurrengo albisteak 1908ko Uztailekoak ditugu: hilaren 10ean eman zitzaizkion Teologiako azken ikas-notak. Bestalde, urte hura izan zen, 1908koa, bere lehenengo olerki-saria irabazi zuena, baina ez euskaraz eta eza Euskal Herrian ere, Zaragozan baizik.

Arantzazun irakasle, eta Erroman ikasle (1908-1912)

Fraide-etxeetan irakaskuntza berriztatu nahi zen une hartan Arruti bezalako ikasle aitzinatuek esku-hartze zuzena izan beharko zuten irakas-asmo berrietan, eta zarautzitarra Arantzazuko Ikastetxera bidali zuen Dañobeiti Probintzialak. Larrinaga historialaria eta B. Gerra euskal idazlea ere harako izan ziren aukeratuak.

1909ko abuztuan Arrutik Erromarako bidea hartu zuen Zua-zo Nagusi Probintzial berriaren aginduz: Erromako San Antonio Ikastetxean egin zituen bere ikasketak. Zarauzko Artxibo Probintzialean dago han egin behar izan zituen ikasketen programa. Arrutiri Eskritura Santuak eta ikasketa biblikoetarako hizkuntzak ikasteko agindu zitzaion, hizkunta klasikoetarako erakutsita zuen trebetasunagatik, ziur aski.

Badago orkuko anekdota interesgarri bat ere: 1911, frantziskotar bat (Aita D. Falconio) kardinal egin zuen Pio X.ak, eta San Antonion omenaldi ofiziala eskaini zioten. Egokiera hura izan zen Arrutik euskal olerki bat idatzi (lehenengoa, uste dudanez) eta jendaurrean emateko aitzakia: beste hemeretzi hizkuntzatan emandako testuekin batera irakurri zen euskarazkoa ere. Horrez gain, Arrutiri eskatu zioten orduan gregozkoa ere egin eta esatea. Ekitaldi hartako egitaraua eta testu grekoa, dena batera aurkitu ahal izan ditugu Artxibo Probintzialean, "Erbestean" deritzan Erromako euskal poema harekiko argibideen bila genbiltzala.

Erromako ikasketan “summa cum laude” batekin amaitu zituen, eta geroko kronikeek Irakurle Jeneral titulua “con toda brillantez” erdietsi zuela esan izan zuten, albiste nekrologikoa eskaintzean.

Asis eta Alverna bide batez bisitatzeko baimena zuela itzuli zen Euskal Herrira Irakurle berria, 1912ko uztailean, Erriberrin Eskritura Santua irakasten hasteko.

Erriberrin irakasle eta begietatik gaixo

1912ko Urrian Aita Arruti Erriberriko komentura bildu zen, bere irakasle-jardunari ekiteko. Jarduera haren historia xehea egiteko ez dugu artxibo-paperetan albisterik bildu ahal izan, baina komentuko kronikatik dakigunez, prediku-konpromezu sonatuenetan sermoiak ere egin zituela badakigu: “Virgen del Cólera” Ama Birjinaren jaian (1913), adibidez, eta hilabete geroago Txinarako lehen misiolari-taldeari egin zitzaion azken agurrean.

Garaikoek diotenez, Erriberrin irakaskuntzan jardun zuen hilabeteetan ongi erakutsi zuen bere balioa, eta, horregatik, ondoko gaixotasunak ekarri zuen irakaslearen galera deitoratzen du luze kronikariren batek.

Izan ere, txikitatik zekarren begibistako eskastasuna gero eta okerrera zihoan, eta irakasle-erantzukizunei ezin izan zien Arrutik aurre egin, berak eta guztiek nahi zuten gisan. Bi ikastaro bete zituen Arrutik Erreberriko Teologi ikasleei Eskritura Santua irakasten, inoiz idatzi izan denaren kontra hiru urteera iritsi gabe. 1914ko Uztailean Zarautza etorri zen, eta Azaroan Gernika ondoko Forura joan, bere medikua zen Askuntze doktore bilbotarrarenetik hurbilago izateko.

Gaixoaldia, eta azken hilabeteak (1914-1919)

Zabaldu izan diren biografia laburretan, azken urteetan Arantzazun bizi izan zela idatzi izan da, seguruenik Gregorio

Mujikak bere albiste nekrologikoan horixe adierazi zuelako; baina gaizki ulertzeren bat dago hor, zeren eta komentuetako kronikek bestelakorik baitote (Zarautz, Tolosa), Probintziako Nekrologia nagusiak ere bai (Arriluzeak idatzita) eta urte horietan, azkenik, Foruko Meza-Liburuetan ageri baita A. Arruti bere eguneroko sinadura garbiarekin. (Dena den, horrek ez du ukatzen nahitaez Santutegira ikustaldiren bat-edo egin ez zuenik).

Ebakuntzaren bat edo beste tarteko zela eta tratamendu egoki baten ondoren, 1918an garbi zegoen beharbada Arruti gaixoa ez zela erabat itsuturik geratuko, baina hobera egiteko itxaropenak ere galdu egin ziren. Egoeraren adierazgarri da, lehenagotik ere otoitz eta errezoetarako salbuespen-baimenak eman zizkiotela Erromatik (1915: jaierazko Meza emateko, Breviarioaren ordezkari Gure Aita-k errezzatzeko, etab.), eta, azkenik, Bilboko medikuarekikoak eginda zirela-eta, Zarautzerako aldamandatu eman zion Zulaika Probintzialak.

1918ko Ekainaren erdi-aldera joan zen Forutik Zarautza, baina ez zen bere sorterrira bildu gaixotasunaren zamak batere abailduta; alderantziz, begibista eskasak ezarritako mugak hausteko, bere idatz-grinari eta barruan zuen predikari-senari heldu zien gogoz. Abuztuan, esan dugunez, San Bartolometan Oikiara joateko aukera ere izan zuen, eta saiatu zen unean uneko prediku-eskeei erantzuten (Zarautzen bertan, Azpeitian).

Hilabete baietan, ordea, bazen Espainian eta munduan epidemia latz bat, "gripe española" bezala ezagutu zena. Ehundaka milioi lagun gaixotu zen 1918-1919.etan, eta, hura zela-eta, hogeiren bat milioi lagun hil ere egin ziren munduan zenbait hilabetetan gaixotasun horrekin. Hemengo komentuetan ere, herritar paisanoan artean bezala, izututa bizi ziren fraideak, inork ez baitzekien "el trancazo" deitua huskeria bat suertatuko zen, ala gaixoa heriotzeraino eramango zuena.

Une hartako premiak zirela-eta, Aita Arruti Tolosara bidali zuten, eta 1918ko Urriaren 19an bere egoitza berri honetan ze-

goen. Predikari-lanetara jarri zen berehala Aita Arruti, eta urte haietan Foruen alde Euskal Herriko Aldundi eta Udaletxeek zeramaten kanpaina ezagutzeko parada ere izan zuen Tolosan, herri horretan bildu baitzen 1918ko Abenduaren 1.an herritar eta agintarien manifestaldi jendetsu bat. Komentuko Kronikak ere gogoratzen du gertakari hura.

Arruti ere gaixotu zen, urte berriko lehen egunetan, eta indarrek eutsi zioten bitartean, otoitzera eman zen osorik, berak eskatu eta fraideek egiten zizkioten irakurketetara adi, azken unera arte ez baitzuen korderik galdu, eta burua garbi zan zuen. Urtarrilaren 9an bereziki ahul eta larri sentitu zen, eta bere aitor-entzulea deitu, berau eta etxeko guztiak berorren bidez agurtu, eta azken orduko eliz otoitzetara emana zela, emeki-emeki itzali zen Frai Antonio Arruti fraide frantziskotar eta euskal olerkaria. Hogeita hamasei urte zituen. Eguerdi ondoko ordubata zen, 1919 ko Urtarrilaren 9an.

Epidemiak eta ikarak jotako Tolosa hartan eta indarrean zeuden osasun-arauak gordez, gorpua berehala beztitu eta ordu gutxiren buruan eraman zuten komentutik zuzen kanpo santura (recto trámite, dio kronikak). Aurretik, ordea, sakristian eta ahopean abestu omen zitzaizkion agur-otoitz era erres-pontsoak.

Hiletak biharamunean egin ziren, goizeko 9etan, bertako frantziskotarren elizan, Parrokia eta erlijioso-komentuetako ordezkariak bertan zirela, eta hainbat herritar ere tartean zela.

Arruti olerkariarentzako leku bat

Arruti hil orduko zera idatzi zen: “heriotzeak ustegabeen harapatu ez balu, olerkiok bildu, zerbait ukitu eta liburu gisara aritara emateko asmoa zuen itxuraz [autoreak], oraindik argitara gabe zituen beste batzuekin batera”. Baina argitalpen-ogo hura ez zen egikaritu ahal izan, hilondoan, eta Arrutiren obra sakabanaturik geratu zen aldizkarietan, gaur egunak arte.

Lan-kopuruaren aldetik obra aski zabala utzi zigun Arrutik, antzekorik ageri ez den hamarkada batean (1908-1919). Arrese Beitiaren belauna desagertua zen (+ 1906), eta ondokoen lanak jaiotzear zeuden, artean, Arrutik bere euskal lanari ekin zionean, eta berori burutzean ere (1913-1919). Euskal olertia-
ren tarte jakin bateko poeta da Antonio Arruti, eta garaiko oparoena, gainera. Ikusi besterik ez dago nolako hutsunea ageri den, poesian, mende honetako lehen bi hamarkadetan, P. Iztuetak eman digun *Orixeta bere garaia* saioan ikus daiteke orduko kultur lerro nagusiak nondik nora zebiltzan (Donostia: Etor. 278-294).

Orduantxe hasia zen Orixeta bere lehen olerkiak ematen (1915), hasia bakarrik, eta, bestalde, Lekuonaren lan teorikoak geroago emango zituen bere fruituak. Arrutik ez zuen abagunerik izan laster agertuko ziren balio literario berriak ezagutu eta dastatzeko. Komentu munduaren eta kaleko euskaltzaletasun orokorraren barnean bere gisara boldatu behar izan zuen olerkigintzan. Balio poetiko nahiko bakartia ematen du, ba, Arrutik. Bakartia, eta nahiko bitxia ere bai, urteak zehar egin zituen hizkuntz hautapenen aldetik, behintzat.

Arrutiren lanak hasiera eta garapen luze izan zituen erdaraz, eta erdaraz bakarrik lehen urteetan (1908-1909); hurrena, pasarerako elebitasun bat dator, olerkiak gehienbat erdaraz emanez baina euskarazkoak ere tartekatuz. Azken hiru urteetan, ordea, dena euskaraz eman zuen, erdarari lekurik utzi gabe (1916-1919).

Giza izaera itolarrituaren oharpen argiago baten sortzearekin ere zerikusirik badutela esango nuke Arrutiren hizkuntz hautapenek. Hezkuntz eta ikasle-garaietan erdaraz idatzi zuen, eta heldutasunera egin ahala eta kultura jantziago batera iritsi ahala, euskaraz idaztera jo zuen, barnetasun jatorrago baten bila lerratuz. Urteek aurrera egin ahala, Euskal Herriarekiko eta euskararekiko balioespen biziagoa somatzen zaio Arrutiri, eman zitzaizkion sariek bultzata, noski, eta inguruko abertzale-

tasunak eta Euskal Pizkunde kulturalak aldarrikatutako balioek erakarrita.

Joxe Azurmendik egin du Arrutiren berreskuratze historiko-literarioarako lana, "Arrutiren poesiaz ohar batzuk" deritzan lanean, eta agerian geratzen da bertan, nolako aldaketa ideologikoa erakusten digun Arrutik bere obran zehar. Izan ere, lehen orduetan erdarak ekarri zion arrakastak ez zuen Arruti -geroko gizon ongi eskolatua- itsutu, eta alderantziz, euskal kontzientziaren berritze-bidean sartu zen, gero eta barnerago.

Ez naiz hemen hasiko aipatutako kritikariak egin dituen oharak, guztiak, biltzen, izango baitu irakurle interesatuak hori ezagutzeko aukerarik. Baina ez dut utzi nai esan gabe beste zerbait: komeni da Arrutiren poesia haren biografiaren argitan irakurtzea. Haurtzaro zaila eta osasun ez onekoa izandako haurra zen Arruti, eta, bere baitako eskarmentutik eta inguruan ikusitakoetatik tragedia pertsonalaren itxura du haren bizitzak, eta gizarteko alde sozial ilunak salatuta daude haren olerkietan.

Bestalde, sentimendu erlijiosoa, garaiko bere moldez, oso presente dago Arrutiren lanetan, pertsonala eta soziologikoa, baina era berean baita Izadia ere, ondoko olerkari-belaunaren aintzin-oihartzunak izan daitezkeen dardaraizo batekin.

Arrutiren lanak bere tamaina du, eta bere lekua. Badugu euskal literaturan Arruti baino olerkari hoberik, baina Euskal Literaturaren historia nekez izango da zinez osoa, olerkari zarratzen honen ekarpena baztertuta. Laster kalean nahiko gurekin edizioak lagunduko al du hori ulertzen.

Joseba Intxausti